

1999.2000. EKONOMIA  
064 1/2. Iker.

Bonak Mikelene eta Imanol Urtxuri  
Arantza, L. V.  
ELIZABEKO OHTUREN ALDAKETAK

ETNOLOGIA ETA DIALEKTOLOGIA LEHIAKETA - 2000.eko apirila

Transmisorearen izen-abizenak: Carmen Ordóñez.

Adina: 77 urte.

Herria: Arantza, Urdingobaita etxea.

Gaia: Elizako ohturen aldaketak.

Oharra: Transkripzioan aboskereta eta hizkera errespetatu dugu.

**TRANSKRIPZIOA:**

*Aurkezpena:* Beno, kaixo, hementxe gaude, Arantza herriyin, Urdinbatta itxin ta gure ondun dugu Carmen Ordóñez. 77 urte itu ta berekin elizako konturi ta oiturari, oiturari aldaketari buruz solastu bar dugu.

*Galdera:* Eeee... nola itten ziren lenago bataiuk?

*Carmen:* Pues bataiuk guain bezala, no bakarrik zen yayo ta segidun, biaunin.

*Galdera:* Ta yende aunitz yoaten zen ordun?, bataiotara ta?

*Carmen:* Ez, gutti! Aurrak, aurrak bai aunitz. Botatzen ziren dirua ta ek biltzera ta gañekun bertzerik ez. Atautxi ta amaxi ta yasta! Atta ta ama re etziren yuaten ordun.

*Galdera:* Ez? Ordun aunitz kanbiatu dire, aldatu dire gauzak?

*Carmen:* Bai, bueno, aunitz kanbiatu ez biñio pixkot ere bai. Atta ta ama etziren yuaten ta yuaten tzien atautxi ta amaxi ta gero norbattere geigo ta aurrak.

*Galdera:* Gero kumuniuk ta nola izaten ziren? Zenbat urtekin itten ziren?

*Carmen:* Pues kumuniuk yende guttikin. Kumuniua itten zen zappi-zortzi urtetan eta etzen iñon guain bezelko bestik itten yous ere; bakotxa bere itxera yuan ta zerbattere difentexigua egin ta yasta!

*Galdera:* Ta, kumuniua biñlo len dotriñia do ikasten zuten? Katekesis do?

*Carmen:* Bai, bai. Katekesisen denbora aundiyan egoten ginen eskoltikan elizara yuanta. Elizan ikasten genun apezakin, katekesis.

*Galdera:* Gero konfirmaziua nola itten zuten? Noiz itten zuten?

*Carmen:* Konfirmaziua pues geroxigo, ez guain bezela aundittuta; ttikia zelikan maten zuten konfirmaziua.

*Galdera:* Zenbat urte ola, mas o menos?

*Carmen:* Ni ez naz oroitzen.

*Galdera:* Amabi bat do ola?

*Carmen:* Ez, guttigo, guttigo.

*Galdera:* Ta ordun yendia yuaten tzen aunitz mezara?

*Carmen:* Mezara bai, mezara aunitz yuaten zen. Guain alko doble, biñlo bakarrikian etzen bestik itten deus ere, deusekin.

*Galdera:* Bazkaririk ta deus ere?

*Carmen:* Yous ere, yous ere.

*Galdera:* Ta konfirmaziura gurasuk yuaten ziren? Do bataiun bezela? Atautxi ta utsa yuaten ziren?

*Carmen:* Ez naz ongi oroitzen biñon noski, uste dut, etzirela yuaten atautxi ta amaxi edo attau ( ; ) atta ta ama ta orik.

*Galdera:* Ta orduan, egunin zenbat meza edo ola izaten tziren?

*Carmen:* Egunin bi meza.

*Galdera:* Ta ze ordutan?

*Carmen:* Zazpitan ta zortzi terditan do ola. Zatten ziren iru apez, beti ez, biñio bi beti.

*Galdera:* Ta yuaten zinten bitara beti? Egunero?

*Carmen:* Egunero ez, ez.

*Galdera:* Ah! Ta gero asteburutan do zatten zen aparte ola geigo meza?

*Carmen:* Launtin asi zen biñon ori berandogo. Igandetan, berriz, iru meza.

*Galdera:* Ta gero elizko ori zelebraziuk ta, austerre eguna ta nola itten ziren orik?

*Carmen:* Pues guain bezaltxen, meza batkin autsa eman ta yasta! Yendea ibiltzen zen azkarki ta.

*Galdera:* Guain oitura piskot galtzen ari da. Yende guttigo ta yuaten ari da igual?

*Carmen:* Yende guttigo yoaten da uain. Guain lan aunitz bada bertzetan. Guttixigo yuaten da... ordun egitten zen...

*Galdera:* Ta monagillo do aritzen zinten ttikitak?

*Carmen:* Gu ez biñon gure umik... Gure denboran monagilluk zatten ziren mutik kozkorra, neskakik etzen zatten.

*Galdera:* Ta gero, yendia guain biñio geigo ezkontzen zen? Ezkondu ordun denak itten ziren?

*Carmen:* Denak, ordun denak ezkontzen ziren.

*Galdera:* Ta guain bezela adin igualtaukin, ez?

*Carmen:* Bai, gutti gotti betti. Igual lentxigo guain biñio.

*Galdera:* Or, ezkontzan itten zuten ospakizunikan do? Bazkaria ta?

*Carmen:* Bai, pixket bai. Bazkaria, boda itten zen lenbizko. Biñon yende guttikin.

*Galdera:* Elizara ta gutti yuaten zen?

*Carmen:* Ez, elizara bai, biñon elizara yuaten ziren bodakuk, berrogeitamar edo irutnoei lagunkin do ola boda... asi eske...

*Galdera:* Ta Aste Santuk do nola itten tziren?

*Carmen:* Aste Santuk agitz fuertik.

*Galdera:* Nola? Pixket esplikatu ola.

*Carmen:* Tortzen ziren orik, frailik do ola, jesuitak do oritikan ta ek itten zittuzten sermoiak. Goiztan ebet elizkizuna ein ta arrasletan, berriz, itten zen sermoia. Ortzeguna ta ortzilin sermoi luzik.

*Galdera:* Ta orrat ya yuaten zinten egunero?

*Carmen:* Bai, bai, orrat yendia agitz aunitz yuaten zen egunero. Ortzegun santu egunin agitz aunitz ta ortzilin ere bai. Ta ortzilin zatten zen prozesua guain bezela, kanposantura.

*Galdera:* Ta ordun zuen garaitan ola apezak ta xuriz yauntzitzen ziren guain bezela?

*Carmen:* Bai, monagilluk ere yauntziak beti.

*Galdera:* Gero Austerre eguna ta nola zatten zen?

*Carmen:* Austerre eguna re guain bezaltxen.

*Galdera:* Yendia yuaten zen do?

*Carmen:* Bai, bai, yendia yuaten zen ongi ta zeremonia bera.

*Galdera:* Ordun ola igual, mezak hizieguk edo ola ziren, luzexiguk?

- Carmen:* Ez tut uste. Beti mezan tartin igandetan sermoia bai biñio gañekutan etzen zatten sermoyikan, meza igualtsua.
- Galdera:* Ta gero, Bestaberri eguna nola egitten zuten?
- Carmen:* Bestaberri eguna, egun aundiya.
- Galdera:* Kumuniuk ta orain bezela? Bestaberri egunin itten ziren?
- Carmen:* Ez, ez tut uste, ori gerogor asiya da ño Bestaberri eguna prozesiukin eta txistukin ta agitz ona itten zen, beti ala in da.
- Galdera:* Yende aunitz orrat ere yuaten zen?
- Carmen:* Bai, bai, yendia aunitz.
- Galdera:* Gero, Amabirjin egunin berriz zer itten tzunten?
- Carmen:* Pues, Amabirjin egunin elizara torri mez nagusira, ta prozesion ibili, eta gero itxera yuan ta baxkaria parientikin eta agitz ongi pasatzen genun.
- Galdera:* Txanpain ta edatten zuten?
- Carmen:* Ez, txanpañik etzen zatten ordun. Zatten zen milloñ guk ez genun edaten. Bakarrikan baxkare ederrak egitten gintun. Ta gero, arraslin, berriz, musika ta plazara, guaintxen bezaltzen.
- Galdera:* Ta gero, arratsin noiz tortzen zinten?
- Carmen:* Arratsin, berriz, afaltzera itxera yuan arraslin eta arratsin berriz musikara.
- Galdera:* Ño guain ño yende, guain ño goizgo tortzen zinten, ez?
- Carmen:* Bai, itxera yuaten ginene, pues, ordu bat terdik, biyak aldin do ola.
- Galdera:* Gero, mezan, Amabirjin egunin, betia egotteren zanen zen eliza ez?
- Carmen:* Bai, yende aunitz tortzen zen Amabirjin egunin. Kanpotar aunitz tortzen zen bestara eta ek denak yuaten ziren... bien.
- Galdera:* Ta dantzarik ta zatten ziren Amabirjin egunin?
- Carmen:* Bai, bai, dantzarik bai.
- Galdera:* Xuriz yauntziak guain bezela?
- Carmen:* Bai, bai, agitz ongi yauntziak. Itten zuten zortzikua ta neska dantza, bai bueno, guain bezela. Orik itten zittuzten. Txistulai, txistulaiake ere baziren salla, agitz ongi.
- Galdera:* Difuntun eguna, berriz, nola eitten tzunten? Guain bezeltxo do...? Yuaten zinten kanposantura do ola?
- Carmen:* Difuntun eguna guain bittarte bezela. Meza in, goizin eee! Arraslin ez, goizin meza in, gero mezara, ooo! Kanposantura yuan guain bezela, igualtso.
- Galdera:* An lorik do erautten zittuzten? Lorik ta?
- Carmen:* Etzen guain bezalko kostunbria izatten, batzuk erautten zittuzten biñon denak ez guain bezela.
- Galdera:* Gero, guain udaberria ixtantin ta San Migel eguna ere alletzen ari da ta, nola zatten tzen lenago?
- Carmen:* Pues, igual. Tortzen zen San Migel, yendia franko yuaten zen ta ekin meza entzun eta ura bere martxan yuaten zen, ta guain bezeltxe. Etzen difentzi aundirikan.
- Galdera:* Prozesiua ta eitten zen San Migelkin?
- Carmen:* Bai, landaz landa ibiltzen zen San Migel aingerukin bai. Guain ezta itten ala biñon lenago yuaten zen landa guzitik barna bedeinkziuk matten. Difentzia ori da, guain itten du erriyin bertatikan.
- Galdera:* Ta gero, erosariuk ta, egitten zittuzten erosariuk?
- Carmen:* Erosariua bai, egunero itten genun erreztu itxin eta elizan, berriz, urrirun, oktubren, izatten zen erosariua egunero. Goizin cee! Goizin zazpiyak aldin edo eztakit noiz izaten zen, tortzen ginen tarteka.
- Galdera:* Ordun goiz yikitzen zinten?
- Carmen:* Bai, ordun bai.

- Galdera:* Ta ileta elizkizunak nola zelkbratzen zintuzten?
- Carmen:* Pues pixket difentexigo guain biño. Ordun itten tzen entierria lenbiziko ta gero biaunin, bigarren egunin itten ziren mezak man, meza difuntun alde ta gañekun igualtso.
- Galdera:* Yende aunitz yuaten zen?
- Carmen:* Bai. ( ; )
- Galdera:* Ordun bizkarrin erautzen zanen tzen kaja ez arat, kanposantura?
- Carmen:* Guain berriro arte ere bai.
- Galdera:* Bai, guain ya kotxin. Ta zuek, edozein il ezkerre re yuaten tzinten? Ezpazunten izautzen ta ola?
- Carmen:* Bueno, errikua izautzen da dena. Ta geienin yuaten ginen geintan. Guain parientia baldin bada motibo geyagokin, biño denak geintan yuaten ginen.
- Galdera:* Ta monagilluk ere izatten tziren, ez?
- Carmen:* Bai, bai, monagilluk beti.
- Galdera:* Guain bezela bat do bi, do ola do?
- Carmen:* Bi benpen beti. Mez guzitan bi monagillo izaten ziren.
- Galdera:* Ta yauntziyak?
- Carmen:* Igandetan ta yauntziyak bai.
- Galdera:* Ta gero, elizak, elizan itxura aldatu da orduzkerotikan? Do guain aunditu dute do ola zerbattere?
- Carmen:* Eztut uste, eliza beti ederra egondu da Arantzko eliza, eta ongi moldatua.
- Galdera:* Ta, ordun apezari ori, e, apeza nola itten zuten errespetatu? Do zerbait itten zionten?
- Carmen:* Bueno, beti errespetua eraun diogu apezari, guain ere bai eee! Eraun bar den bezala.
- Galdera:* No ordun lenago do?
- Carmen:* Geixigo igual bai eta geixigo. Sotanakin ibiltzen ziren ta geixigo matzen zuten errespetua.
- Galdera:* Erriyin barna re sotanakin ta ola?
- Carmen:* Beti, beti, baserritan ta dentan, beti sotanakin ibiltzen ziren ta nabaitzen zen zein zen apeza.
- Galdera:* Ta arekin yendia normal solasten zen do?
- Carmen:* Bai, guain ño guttixigo ño bai, bai, normal bai. Apezak agitz onak izan dire ta, beti solastu izan gara.
- Galdera:* Ordun, aixtin erran tzu iru apez ibiltzen zirela?
- Carmen:* Beti geinterun ( ; ) ez biñon zandu dire iru apezkin denbora franko e, bi beti.
- Galdera:* Ta, biyek ze aritzen ziren, txandaka do ola apezak?
- Carmen:* Bai, eben lanak artuak izatten zittuzten ta batek mez bat ta bertzik bertzia ta.
- Galdera:* Ordun yendia yuaten tzen franko baserritikan ta baita aunitz, ez?
- Carmen:* Elizara? Bai, bai.
- Galdera:* No kotxerik ta gabe?
- Carmen:* Yeus ere, yeus ere, oñaz dena, ez kotxerik ta ez bertzerikan.
- Galdera:* Garai etan ori dotriñia ta edoziñek maten tzun do?
- Carmen:* Bai, edoziñek ez biño apezak eta gero bertze bi emakumek do ola matzen tzuten, gure denboran.
- Galdera:* Ta, non ematten zuten? Klasik ta, elizan?
- Carmen:* Elizan bai.
- Galdera:* Ta, aur aunitz ta yuaten ziren?
- Carmen:* Aunitz aunitz.

*Galdera:* Elizat betetzko aña?

*Carmen:* Bueno! Hehehehehehe! Aunitz yuaten zen bai.

*Galdera:* Orduan fallatzen zuten? Do, yuaten zinten geienetan yiya?

*Carmen:* Dotriñiara? Bai, Dotriñiara yuaten giñen bai. Geienak.

*Galdera:* Ta ongi pasatzen zenuten do?

*Carmen:* Agitz ongi, agitz ongi.

*Galdera:* Lagunak ta ikusten zinttuzten?

*Carmen:* Bai.

*Galdera:* Ta oroitzen zara ze eguntan zatten tzen dotriñia?... Ez? Noiz zatten zen do?

*Eskoltik ateta do ola?*

*Carmen:* Eskoltik ateta yuaten ginen dotriñara. Ta an pasatzen genun, an egoten giñen dotrinan eztakit zenbat denbora, mifio egunero yuaten giñen.

*Galdera:* Ta ordun konfesiuk, konfesiuk nola itten zinttuzten?

*Carmen:* Pues konfesiuk, ez guain bezala. Konfesiuk itten ziren, pues, konfesionariora yuaren ta an konfesten zen. Guaiñ itten da dena batin. Ordun berriz itten zun bakotxak berria.

*Galdera:* Ta gero konfestu ondotik aitagure bat do zerbett itten zuten?

*Carmen:* Harek matzen zun penitencia, aitagure bat do, iru abemaria, do edozin.

*Aguirre:* Bueno Carmen, eskerrikasko, gurekin egotegatik, ta urrengo arte.

*Carmen:* Nai zuen arte.

2º Saria Dialekt.

1. 2. maila

ETNOLOGIA ETA DIALEKTOLOGIA LEHIAKETA -2000.eko apirila

Izen-deiturak: BEÑAT MITXELENA eta IMANOL LUKANBIO

Helbidea: ARANTZA

Maila: D.B.H.ko lehen maila

Ikastetxearen izena: ARANTZAKO ESKOLA

Gaia: Elizako ohituren aldaketak.

Transmisoreea: Carmen Ordóñez.